

poetari eta bide batez Bizkaiko Ahorro Kaxak eskeiñitako sariak eman ziran. Bat Euskaltzaindiarena A. Zubikaray-k irabazia eta bestea Bizkaiko Kultura Batzarrekoarena Luis Mitxelena-k irabazia. 1962 urteko "Premio de Literatura Caja de Ahorros Vizcaina" zan gure euskaltzaiñak merezi izan zuena "Orígenes del Vascuence y proceso evolutivo de sus formas dialectales" lanagatik. Ogetabost milla pezetako saria.

### L. DASSANCE JAUNAREN OMENEZ USTARITZEN

1962 agustuaren 30-ean Eskualzaleen Biltzarrak L. Dassance jaunaren omenez festak egin zituen Ustaritzen. Euskaltzaindiko jaunak ere bertara joan ziran omenezko batzarrea egitera.

### EUSKALTZAIÑEN SARRERA ITZALDIAK

Beloken egin zuen Aita Xabier Diharce "Iratzeder"-ek 1963 maiatzaren 18-an eta Piarres Lafitte jaunak egin zion erantzuna.

Baigorri-n Jean Haritschelhar jaunak 1963 uztailaren 28-an. Meza nagusian Eppherre jaun kalonje eta euskaltzaiñak egin zuen egunari zegokion predikua. Sarrera itzaldiari René Lafon-ek erantzun zion Zuberoako euskera jator batean.

Luzaide-n Jose Maria Satrustegi jaunak 1963 irailaren 15-ean. Aingeru Irigaray jaunak egin zion erantzuna.

Azkain-en Piarres Larzabal jaunak 1963 azaroaren 10-ean. Meza nagusian egunari zegokion predikua Aita Xabier Diharce-k egin zuen. Sarrera itzaldiari Piarres Lafitte jaunak egin zion erantzuna.

### BERTSOLARIEN TXAPELKETAK

1962 urtean Euskaltzaindiak bertsolarien txapelketak egin zituen erririk erri eta bukatzeko Euskalerrri osoko txapelketa nagusi bat prestatu zuen Donostiako Astoria Teatroan "Centro de Atracción y Turismo" alkartadearen laguntasunarekin gabon zer bezperan. Manuel Olaizola "Uztapide" izendatu zan Euskalerrriko txapelduna eta bigarren Iñazio Eizmendi "Basarri".

Aurretik egin ziran txapelketak auek dira:

#### **Bizkaian:**

Garagarillaren 13-an Urkiola-n Julian Martitegi Mañari-koa txapeldun.

Uztailaren 15-ean Mungia-n Juan Lopategi Muxika-koa txapeldun.

Uztailaren 18-an Markiña-n Jose Maria Arregi Berriatua-koa txapeldun.

Agustuaren 12-an Iyorre-n Basilio Pujana Zeanuri-koa txapeldun.

Agustuaren 20-an Gernika-n azkenaren aurreko saioa. Kopa bat eman zitzaion Juan Lopategi-ri.

Agustuaren 26-an Bilbon azken saioa. Juan Lopategi Bizkaiko txapeldun eta Juan Azpillaga Berriatua-koa bigarren. Irakaskintza Erdi Maillako Institutoan izan zan.

**Nafarroan (Viana Printzipearen Alkartadeko Euskeraren Aldeko Saillak antolatuta):**

Uztailaren 1-ean Errazu-n Bautista Madariaga Arantza-koa txapeldun.

Agustuaren 19-an Goizueta-n Andres Narbarte Goizueta-koa txapeldun.

Iraillaren 23-an Bera-n azken saioa. Migel Arozamena Lesaka-koa Nafarroa ko txapeldun eta Migel Zabaleta Areso-koa bigarren.

**Gipuzkoan:**

Uztailaren 8-an Bergara-n Jesus Egileor Osintxu-koa txapeldun.

Uztailaren 22-an Deba-n Manuel Uranga Itziar-koa txapeldun.

Agustuaren 2-an Azpeitia-n Manuel Lazkano Azpeiti-koa txapeldun.

Agustuaren 4-an Oyartzun-en Kosme Lizaso txapeldun eta Jose Luis Lekuona "Lexoti" bigarren.

Iraillaren 30-ean Beasain-en Jose Migel Iztueta "Lazkao Txiki" Lazkao-koa txapeldun.

Urriaren 7-an Tolosa-n Kasiano Ibarguren Lizartza-koa txapeldun eta Fermín Muñoa Berrobi-koa bigarren.

Azaroaren 11-an Eibar-en azkenaren aurreko saioa. Jose Migel Iztueta "Lazkao Txiki"-k jaso zuen sari nagusia eta bigarrena Joakin Mitxelena Oyartzun-goak.

Abenduaren 9-an Ernani-n azken saioa. Joakin Mitxelena Gipuzkoako txapeldun eta Jose Migel Iztueta "Lazkao Txiki" bigarren.

Esan degun bezela Euskalerriko azken saioa Donostiako Astoria Teatroan egin zan abenduaren 30-ean.

**1963 urtean Bizkaian saio batzuek antolatu ziran txapelketa gabe:**

Garagarrillaren 13-an Urkiola-n.

Markiña-n uztailaren 21-ean.

Mungia-n agustuaren 4-an.

Iyorre-n agustuaren 11-an.

Gernika-n agustuaren 19-an.

Bilbon iraillaren 22-an. Bilbokoan Bizkaikoak ez tiranak ere parte artu zuten. Bizkaikoen artean gañera kopa bat jokatu zan bederatzi puntuko bertsoa nork obeto kantatu. Juan Mugartegi Berriatua-koak irabazi zuen. Bilboko saioa, aurreko urtean bezela, Irakaskintza Erdi Maillako Institutoan izan zan.

**Nafarroan txapelketak egin ziran:**

Areso-n maiatzaren 19-an Manuel Huizi Arano-koa txapeldun.

Arizkun-en garagarrillaren 23-an Simon Ibarra Sumbilla-koa txapeldun.

Iruñean azken saioa azaroaren 17-an. Gayarre Teatroan izan zan. Migel Arozamena Lesaka-koa Nafarroako txapeldun eta Andres Narbarte Goizueta-koa bigarren.

Bestelako egun bat ere izan zan Ernani-n. Txirrita-ri omenaldi bikain bat egin zitzaion 1963 maiatzaren 12-an. Bertako kale bati bertsolari famatuaren izena jarri zitzaion egun artan. Bertsolaririk onenetakoak izan ziran eta festa ederrak gertatu ziran.

Euskaltzaindiak 1962 urtean agertzen ziran bertso papelik onenentzat txapelketa bat jarri zuen eta irabazleei Txirrita-n omenaldiaren egunean eman zitzaizkien sariak. Lenengoa Jesus Lete "Ibai-ertz"-ek artu zuen. Bigarrena, Sebastian Salaberria-k. Irugarrena, Manuel Uranga-k. Eta laugarrena, Basilio Pujana-k.

Azaroaren 17-an Eibar-ko zezen plazan saio bat egin zan Manuel Lasarte-ri omenez bertsolaririk onenetakoak parte artzen zutela. Modu orretan diru laguntasuna eskeiñi zitzaion bertsolari nafarrari bere gexo gogorraren ondoren.

Eztago zertan esan jentea erruz eta gustora bildu zala saio guztietara.

## **EUSKALZALEEN BILTZARRA EUSKALTZAINDIAK ERATUA ARANTZAZU-N**

1963 iraillaren 30-etik urriaren 2-ra Euskalzaleen Biltzarra prestatu zuen Euskaltzaindiak. Bertan ainbat itzaldi egin ziran eta bakoitza bukatzen zanean berriketari bidea ematen zitzaion oitura dan bezela. Gai nagusia "Euskal iztegia eta gaur eguneko bearrak" izan zan, bi sailletan banatua. Lenengoa "Euskal iztegiaren iturburuak" eta bigarrena "Kultura itzak euskeraz".

Urrengo Euskalzaleen Biltzarra Loyola-n egingo da Aita Jesuiten etxean 1964 urteko agustuan. Iru egunetan egiteko asmoa dago: ostiral, larunbat eta igandez.

## **ITZALDIAK BILBON**

1962 urteko martxoaren 2-an Aita Luis Villasante-k egin zuen itzaldi bat Bizkaiko Diputazioaren Bibliotekan Bizkaiko Kultura Batzarreak antolatzen dituenen artean. "Axular y su célebre obra Guero" izan zan bere jardunaren titulua.

Urte bereko apirilaren 12-an Luis Mitxelena jaunak egin zuen beste bat leku berean. "El vasco y las lenguas antiguas de España y Francia" izan zan titulua. Onela zion programak: "Raza, cultura y lengua. El aislamiento de la lengua vasca. Parentesco y afinidad. Galo y Aquitano. Escrituras y lenguas his-